



Klaustroaren ohiko bilera

Zehaztasunak

Organoa: Joanes Etxeberri BHIko klaustroa

Eguna: 2012/10/21

Tokia: Ikastetxea

Hasiera ordua: 17:05

Amaiera ordua: 18:40

Bertaratuak:

Josune Garai, Amaia Zubiria, Maria Blazquez, Joseba Guemes, Patxi Eizaguirre, Naia Eguskitzza, Lorena Etxeberri, Iraia Korkostegi, Ines Agirregoikoa, Maialen Larraia, Paule Senar, Miren Munozguren, Amalia Castro, Yolanda Linatza, Jokin Ulazia, Jone Aranalde, Ane Petxarroman, Mikel Agirre, Peru Ariz, Nuria Zapiain, Iñaki Sanz, Toti Martinez, Arantza Gardeazabal, Aitor Odriozola, Ainara Urreta

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Jone Irizar, Josu Aldatz

Gai zerrenda:

1. Aurreko akta irakurtzea
2. Irakasleen karpeta
3. Hainbat ohar
4. Informatika arloa
5. Jangelako arduradunaren informazioa
6. Eskariak eta galderak

Eztabaidak eta erabakiak:

1. Aurreko akta irakurtzea

Aho batez onartu da aurreko akta.

2. Irakasleen karpeta

Irakasleen karpeta eta ikasturte hasierako ebazpena "N" karpetan jarri dituela jakinarazi du zuzendariak, eta begiratzeko eskatu du. Ondoren, puntu garrantzitsuenak azaldu ditu:

- Arauak
- Orduetgia

3. Hainbat ohar

- Bilera egunak astelehen eta asteazkenak izango dira.
- Pedagogia batzordeko bilerak ostiraletan izango dira, 11:00etatik 12:30era.
- Gurasoekin biltzeko orduak eskola orduz kanpo hartu behar dira.
- Puntu-puntu ibiltzeko eskatu dute zuzendaritzakoek, baita jolas orduetan ere.
- Azken orduan, haurrak irakasleek lagunduta jaitsiko dira autobusetara.
- Haurren batek autobusa galduz gero idazkaritzara joatea komeni da.



- Irakasleek aldeztatik jakinarazi behar diete zuzendariari eta ikasketaburuari ez direla etorriko eskolara.
- Idazkaritzan daude hutsegiteen egiaztagiriak eta bete beharreko bestelako orriak.
- Baja eta alta agiriak lehenbailehen bidaltzea komeni da, ordezkoak eskatzeko.
- Irakasleek zorrotz kontrolatu behar dute ikasleak bertaraten diren edo huts egiten duten eskolara.
- Barruko aparkalekuko automobilak ezin dira atera haurrak ikastetxean dabiltean bitartean.

4. Informatika arloa

Sarea ez moteltzeko, musika, filmak... ez jaisteko gogorarazi dute zuzendaritzakoek.

Argazkiak web orrian jartzeko prozedura: Irakasle bakoitzak "N" karpeta sartuko ditu 10 bat argazki irteera bakoitzeko; ondoren, IKT arduradunek web orriko gurasoen atalean jarriko dituzte.

5. Jangelako arduradunaren informazioa

- Irailaren 9an, gelaz gela pasatuko da, ea ikasleen datuak ondo dauden ikustera.
- Eguerdian etxera doazenak irailaren 23a arte 13:00ean irtengo direla gogorarazi du.
- Txartelak banatzeko bilera bat egingo da.
- Diziplina arazoak jangelan bertan konponduko dira; baina, larriak baldin badira, tutoreari jakinaraziko zaio.

6. Eskariak eta galderak

Ez da egon ez eskaririk ez galderarik.

Besterik gabe, arratsaldeko seiak eta berrogeian, bilera amaitutzat eman du zuzendariak. Nik, idazkari bezala, akta honetan adierazitako guztiak egiaztatzen ditut.

Idazkaria

Obaban, 2012ko urriaren 21ean